

NAFARROAKO ANBULANTZIEN GREBA. Osasun sailburuak lan gatazkak «zirt edo zart» egin behar zuela esan bazuen ere, oraindik ez da akordiorik lortu. Sindikatuak akordioa ordezkariatza handiena duen Aenat patronalaren esku dagoela esan dute.

Akordioa lortzea ambulanzia enpresen esku dagoela berretsi dute sindikatuek

Sanz, CCOO eta UGTk atzo egindako bileran negoziatioetatik baztertzeko saioa ikusi dute ELAk eta LABek



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Anbulantzietako langileek gose greba hasi aurretik hainbat elkarretaritze eta protesta egin dituzte euren egoera salatzen.

GOSE GREBA

Lizarra, Tafalla eta Azagrako egoitzak itxirik daude

Anbulantzietako langileek 29. greba eguna bete dute gaur. Sektorean enplegatzen diren 232 langileetatik 170 ari dira barau egiten. Bosgarren gose greba eguna izanik, bajak nagusitu dira eta Lizarra, Tafalla eta Azagrako egoitzak itxi egin zituzten atzo bertan larrialdiak egiten zituzten langile guztiek baja hartu dutelako.

Iruñea, Tuteran, Altsasu, Lesaka eta Leitzaan oraindik gelditzen dira langileak, baina gutxi. Zangoza eta Doneztebe dira ongi ari diren bakarrak barau ez egitea erabaki dutelako. Orain zerbitzua suhiltzaileek, Gurutze Gorriak eta DYAk ematen du, baina arazoa handiak dituzte denetara iristeko.

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Nafarroako ambulanzien lan gatazkak 29. greba eguna bete du. Aferaren irtenbidea sektorean gehiengo duen Aenat patronalak iragan astean beste enpresak eta sindikatuak lortu aurrekordioan oinarritutako hitzarmena lortzea dela berretsi dute langileen ordezkariak. Lan Sailak negoziatzen noiz deitu zain egonen dira gaur.

Miguel Sanz Nafarroako lehendakariarekin UGTko eta CCOOko buruek atzo goizean izandako bilerak ez zuten emaitza onik ekarri. Dena dela, Jose Maria Molinero CCOOko idazkariak bilera ondotik esan zuen arazoa moldatzeko «giltza» enpresen eskuetan dagoela. «Gatazka gehiegi luzatzen ari da. Moldatu egin behar da eta horretarako borondatea dugu», zehaztu zuen.

Sindikatuak berretsi dute arazoa moldatuko dela hitzarmena

SANTIAGO CERVERA
(Osasun kontseilaria)

«Langileen ustezko gose greba larrialdiak ez zaintzeko aurretik zehaztutako zerbait da»

sinatzen denean. Izan ere, Administrazioa prest dago, horrela esan zien behintzat Sanzek, diru gehiago eskaintzeko eta bitartekariatza egiteko. Ildo horretan Manuel Gomez UGTko ordezkariak berretsi zuen irtenbidea Aenat patronalak (Azul eta Baztan Bidaso ambulanzietatik) joan den astean beste enpresek eta sindikatuak sinatu aurrekordioa onartzean datzala. «Aenat Administrazioari erronka botatzen ari zaio. Enpresa txikiak desagerrarazi nahi ditu eta langileekin akordio azkarra eta bi-

ESANAK

MANUEL GOMEZ
(UGTko ordezkaria)

«Aenat Gobernuari erronka botatzen ari zaio, langileekin bidezko akordioa tratatuz»

dezkoa oztopatzen ari da», salatu zuen. Beraz, aurrekordio onartzeko deia egin zuen.

Lau grebalari auzitara

Santiago Cervera Osasun kontseilariak sindikatu eta enpresei negoziatzeko «azken aukera» eskaini zien atzo eta bilerara deitu zituen atzo arratsaldean. Bilera bertan behera gelditu zen afera Lan Sailak hartu duelako. Dena dela, Cerverak langileek gose greba egiten hasi izana gogor salatu zuen atzo. Larrialdietako dei batzuk ez direla artatu

ALEJANDRO BAKAIKUA
(ELAko ordezkaria)

«UGT eta CCOOko buruek, langileek erabakitakoari bizkarra emanez, akordioa lortu nahi izan dute»

esan zuen eta lau grebalari epaitegian salatu ditu Osasun Sailak «laguntza ez emateagatik delitua egin» dutela» uste duelako. «Langileen ustezko gose greba larrialdiak ez egiteko aurretik zehaztutako zerbait da», bota zuen. Baraua «tranpa» bat dela esan zuen. «Gose greba onartezina da gizarte osoarentzako xantaia delako. Xantaia da egoera kritikoa dauden pertsonak bahitu moduan hartu nahi direlako», kritikatu zuen.

Bestalde, ELA eta LAB sindikatuak Nafarroako Gobernuak

eta CCOO eta UGTko buruek egindako mugimenduek salatu zituzten. Negoziazio mahaitik baztertzeko saioa ikusi zuten biak ala biak. «Ez gaituzte bilera gonbidatu. UGT eta CCOOko buruek, langileek erabakitakoari bizkarra emanez, ez dakit zein akordio lortu nahi izan duten», salatu zuen Javier Bakaikua ELAko ordezkariak. ELA eta LABek komunikabideei igorri prentsa oharrean gogoratu zieten sindikatu guztiek eta patronalaren gutxiengoak adostu aurrekordioak duela balioa.

Gisa berean, Aenaten jokabidea salatu zuten. Hogeita bederatzigarren greba egun joan direnean, negoziatio mahaira proposamenik gabe eta gutxieneko zerbitzuak exijituz joan zelako. Halaber, Nafarroako Gobernuaren jarrera salatu zuten. «Nafarroan osasunaz arduratzen den heinean ez du irtenbide egokirik ematen jakin izan» adierazi zuten.